



# Geure ingurua irakurri

## HELBURUAK


- Inguru hurbila aztertzea.
- Irteeran ikusitakoa bertan bete diren fitxetan oinarrituz deskribatzea.

## Jardueraren garapena






Irteera egin bitartean, tartetxo batez, informazioa biltzean datza jarduera. Ikasleak binaka edo hirunaka antolaturik, fitxa-eredu bana beteko dute.

Gero, ikasgelan, iruzkina egin eta fitxak landuko dira. Helburua ez da ikustea bakarrik, begiz aztertzea

baizik. Datu eta behaketen bilduma horrekin, *begirada berri* horri esker ikusi dugun guztiaren laburpena eta deskribapena egin ahal izango ditugu. Edozein irteeratan landu daitezkeen alderdi batzuk jasotzen dituen eskema grafikoa proposatzen dizuegu hemen.















Fitxan, testuaren ordez, marrazkiak, piktogramak edota ikasgelan erabili ohi diren kodeak ipin daitezke, gero, guztion artean, horiei buruz mintzatzeko.

INGURUAREN IRAKURKETA HONDAKINAK     

DATA: 2004KO AZAROK 11

TALDEAREN IZENAK: NEREA / INIGO / ANE

ZENBATU		DESKRIBATU			SORTZEN ZAIZKIGUN GALDERAK ZER? NORK NOIZTIK?NORA?
ZER	ZENBAT 1 2 3 4 5	NOLA?		NON?	
	2				
	4				
	1				

**Ingurua irakurtzeko 10 alderdi**

1. Pertsonak.



2. Espaloiak eta errepideak.



3. Hiriko ekipamendua.



4. Eraikinen kanpoaldea.



5. Animaliak eta horiekin zerikusia duten gauzak, tokiak edo osagaiak.



6. Landareak eta horiekin eta berdeguneekin zerikusia duten gauzak edo osagaiak.



7. Garraioarekin eta mugikortasunarekin zerikusia duten elementuak.



8. Hondakinekin zerikusia duten elementuak, tokiak eta gauzak.



9. Informazioa ematen diguten elementuak.



10. Ur, gas, elektrizitate eta telefonoekin zerikusia duten gauzak.

